

Egara

Alboka Musika Eskolan jaiotako talde honek errealitateari aurka egiteko erabiltzen du musika. Sarak, Larak, Inesek, Leirek eta Maialenek beste talde batzuen abestiak eta eurek sortutakoak jotzen dituzte.

1 **Sorrera.** Egara taldea orain dela lau pabost urte sortu zen, Alboka Musika Eskolako beste hainbat talde bezala. Izan ere, Musika Eskolan ohikoa da klase partikularretan ikasitakoa, taldean zein bikotean praktikan jartzea.

2 **Izena.** Gure izena Eva Zubizarreta irakasleak asmatu zuen. Lehiaketa baterako izena behar genuen eta gure abizenen lehen letra hartu zuen izena osatzeko: Elustondo, Gómez, Arano, Rodríguez eta Alonso.

3 **Kideak.** Bost neska gara taldean: Lara, gitarra; Sara, bateria; Ines, baxua; Maialen, gitarra eta Leire, pianoa. Orain aldaketa izan dugu taldean Sara sei hilabetez Italiara ikastera joan delako eta Maialen Arrizabalagak ordezkatu du.



4 **Estiloa.** Pop-rock estiloa jotzen dugu.

5 **Abestiak.** Besteak beste Kaotiko, Descontrol, Dover, ACDC eta Lain taldeen kantak jotzen ditugu normalean. Hala ere, guk sortutako pare bat kantu ere baditugu: 'Berdintasuna denon ahotan' eta 'Bestea'. Errealitateari aurka egiteko bitartekotzat dugu musika eta honen bitartez berdintasuna aldarrikatzen dugu.

6 **Entseguak.** Hasieran Musika Eskolan entseatzeko guren baina egun, Betiondoko lokalatan entseatzeko dugu bari-kuetan, PAM taldeak utzitako ekipoa-rekin. Haiengatik izango ez balitz, gure taldea ez litzateke existituko.

7 **Azken kontzertua?** Azken kontzertua Mallabiko Herriko tabernan eman genuen, Multa taldearekin batera. Hurrengo kontzertuaren data ez dago zehaztuta.

8 **Diskorik, maketarik...** Ez dugu diskorik ezta maketarik kalera-tu.

SAN ANTONIO
OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
38 urte Ermua euskalduntzen